

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GIDATZEKO SEGURTASUN- ETA LAGUNTZA-SISTEMEN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF1105		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen segurtasun- eta erosotasun-sistemak	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Klimatizazio-sistemen mantentze-lanak	Iraupena	40
	Audioko, bideoko eta telekomunikazioetako ekipoen muntaketa eta mantentze-lanak		30
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0628_2: IBILGAILUEN SEGURTASUN- ETA EROSOTASUN-SISTEMEN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistema osagarrien funtzionamendua deskribatzea, eta haien ezaugarri teknikoak aztertzea, osagaiak ordeztzeko.

- E11.1 Sistemak bloke-diagramen bidez adieraztea, eta haien funtzionamendua azaltzea
- E11.2 Sistemen eta haien elementu edo multzoen eskema elektriko normalizatuak adieraztea
- E11.3 Gidatzeko segurtasun-sistemen, laguntza-sistemen eta motorra-trakzioa kudeaketaren arteko erlazioak azaltzea.

A2: Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistemetako elementuak edo ekipoa ordeztzeko eta/edo konpontzeko behar diren material, ekipo, erreminta eta tresneria espezifikoak trebetasunez erabiltzea.

- E12.1 Muntatzeko eta desmuntatzeko sekuentzia bat ezartzea.
- E12.2 Ibilgailuaren funtsezko atalak muntatzea eta desmuntatzea, aurrez finkatutako denboren eta dagokien kalitatearen arabera.
- E12.3 Segurtasun-sistemen elikadura-zirkuituen parametro elektrikoak egiaztatzea.

A3: Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistemekin lotutako sistema periferikoak eta instalazioak mantentzea, bai eta ibilgailuaren barneko ordenagailuen eta bestelako informazio-sistema batzuen mantentze-lanak egitea.

- E13.1 Sistemetako elementuak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesua deskribatzea
- E13.2 Fabrikatzaileak agindutako aldizkako mantentze-lanak egitea, horretarako egokiak diren tresnak erabiliz.
- E13.3 Mantentze-lanak egiteko tratatu den zirkuituaren eraginkortasuna egiaztatzea.
- E13.4 Egiaztapen-ekipo bereziak behar bezala erabiltzea.

A4: Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistema osagarrien matxurak konpontzea, ezarritako jarraibideen eta segurtasuneko eta laneko osasuneko arauen arabera.

- E14.1 Sistema matxuratuari egokitutako diagnosi-teknikak erabiltzea.
- E14.2 Matxura ohikoenen kausak eta efektuak deskribatzea.
- E14.3 Osagaiak atalka desmuntatzea eta elementu akastuna konpontzea edo ordeztzea. Ondoren, berriz muntatzea.
- E14.4 Konpondutako sistemen segurtasun- eta funtzionaltasun-parametroak aztertzea, konponketaren kalitatea eta segurtasuna lehengoratzeko bermatuz.

Edukiak

1. Ibilgailuetako segurtasun-sistema elektronikoak

- Airbaga, segurtasun-uhalak, aulkixtoak ainguratzeko aurretenkagarriak, eserleku memoriadunak, atzerako ispilu kromatikoak, haizetakoaren pantaila.
- Balaztatze laguntza elektronikoak (ABS eta abar)

2. Gidatze dinamikoa kontrolatzeko sistemak

- Trakzioa kontrolatzeko sistemak
- Diferentziala blokeatzeko sistemak
- Ez labaintzeko sistemak

- Arrapalan laguntzeko sistemak

3. Ibilgailua uzteko edo aparkatzeko laguntza-sistemak

- Distantziak hautemateko sistemak
- Ibilgailua aparkatuta dagoenean, blokeatzeko sistemak

4. Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistemen teknologia

- Funtzionamenduaren sinoptikoa eta xedea
- Kaptadore espezifikoak
- Zirkuitu elektrikoak.
- Zirkuitu hidraulikoak.
- Egiaztatze eta kontrolatzeko ekipo bereziak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak